



MUSIKA

# Mikel Laboaren «lau bost» xoxo beltz bat banuen...

XALBARDIN JOSU LANDA

Eguberrietako jaietarako genuen iadanik erosita «Lau bost» diska eta erosi baino lehen ere, horretaz zerbait egiteko gogoaren zomorroasartu zitzaigun. Honengatik, merezi zuelako eta beste nonbait aginduta genuelako, denbora libre apur bat aurkitu bezain laster ekin diogu diskari, ahal izan dugun neurrian kritikatzeko edo komentario bat egitearren.

Eta aldeaz aurretik bagenekien jakin lan hori aski neketsua suertatuko zitzaigula, beste ezergatik ez bada ere, aurretik elkarren kontrako eritzi eta kritika frango entzun genituelako. Gauza bat baitago garbi: Mikel Laboaren album berria ez da zenbait sektoretan aurretik espero zitekeen alaitasunez eta ongietorriez errezibitu, eta arrazoiak ere frango entzun ditugu. Eta gauza hauek, egia esan, beldurra bezain ilusio handia eman digute, buruan genituen ideia sakabanatuak nolabait bildu eta idazteko.

itzultzeko zain

Has gaitzen bada hor zehar ematen diren

eritziakin. Eta hasierako hotza hausteko, gutxitari entzun arren gehien amorratzen gaituena aipatuko dugu. Mikel Laboaren diska hau —edo Mikel Laboa jeneralean— monotonoa dela esatea alegia. Ez baitugu inoiz oso ongi ulertu zer esan nahi zuen monotoneitate hitz horrek, edo hobe esanda, ez genuen garbi ikusten nori aplikatzen zitzaion kriterio hori, eta norbaiti aplikatzen zerkotan zergatik edo arrazoia ezagutzea gus-tatuko litzaziguke. Agian, honen erantzuna gustoaren munduan aurkitu behar genuke, monotonoa den ala ez erabakitzeko gustoaren arauerako gauza bat litzatekeela alegia. Gure ustez, berriz, ez dahari nahiko, zeren eta, Mikel —edo Txomin Artola maizago aipatzen den kaso bat aipatzeagatik— monotonoa izatekotan, ezin al da gauza berdina esan Leonard Cohen, Demis Roussos edo AC-DCz?. Beraz, badira gustoa ezik beste erizpide batzuek monotoneitatea neurtzeko, hau da, martxa, efeeme, multinazionalak, etabar. Eta horretatik abiatuz, de-



nok ongi aski dakigu noruntzgoazen.

«Lau bost» albumari egin dakiokkeen beste kritika bat ez duela ezer berririk aportatzen esatea litzateke akaso. Eta hori bi zentzutan esan daiteke. Bata, ematen dituen gauza asko aspaldikoak edo aurretik ezagunak direla adierazi nahian, eta bestea, gauza berriak aportatu arren, aurreko estiloan jarraituaz ezin izan duela ezer berririk asmatu. Eta honek Mikel bera aski min dezakeela dakigunez, lehen bait lehen esan nahi dugu ez zaigula eritzi hori bidezko iruditzen. Lehenengo azeptzioan dagokionez ez zaigulako akats bat iruditzen —eskergarria, ordea, kaso honetan— lehenagoko gauzak argitaratzea, eta bigarren azeptzioaren esanahiarekin ez gaudelako batere konforme. Gauza berriak eskaintzen dizkigu Mikelek, geroago ikusiko dugunez. Baina dena dela, ez balitu eskainiko ere, horrek ezer gutxi esna nahi luke gure ustez, esnobismoa ez-baita lan bati buruz aritzeko erizpibè bakarra, ezta inportanteenetakoa ere.

Jendeak pentsatu ere pentsatzen du Mikel Laboa gehiegi mitifikatu dela, eta, ondorioz Jaingo bihurtu. Uste horrek dioenez, Mikelenganako kritika guztiak aldekoak izango liriteke, azkenean erreakzionatzeko ezintasunez jendea itsutu egiten duelarik. Ez da erabateko egia, ezta gutxiagokoa ere, kritikak beti ontzat eman duenik Laboak egin duen guztia. Mikel Laboa azkenean mito bilakatu dela egia baldin bada ere, ezin dugu ahantzi lehenengo kanta sorpresiboak kaleratu zituenean —duela hamar urtetako kantaldietan— aprobazioak eta aldeko kritikak baino, katxondea, bronkak, edo erotutakoei egiten zaizkien keinuak jaso zituela. Jendea denboraren poderioz ohitu egin zen, eta



# MIKEL

hasieran adarjotzea ziru-  
diena azkenean edozei-  
nen ahotan entzun zite-  
keen. Eta ziur gara  
oraingo honetan ere, ha-  
lako asko izan direla.  
baina bigarren aldiz  
hanka sartzeko arriskua-  
rengatik edo, badaez-  
pada ere isildu egin dira.  
Guk ere ez dakigu «Lau  
bost» diskan agertzen  
den produktoa azkenean  
jendeak bereganatu-  
ko duen, baina hori ez da  
guk orain azertu nahi  
duguna. Guk azertu  
nahi duguna diskan ber-  
tan —edo Mikelen ber-  
ren baitan— dago, eta  
horregatik hain zuzen in-  
guruko detaile batzuk ai-  
patu ondoren diskari be-  
rari —edo Mikeliberari—  
eutsiko diogu.



edo kitarraz egindako  
birgeria eskatu. Edo  
agian eskatu bai, baina  
ez da hori berak erabilt-  
zen duen eta mogitzen  
den lekua. Mikelen ro-  
loaren abiapuntua espre-  
sioa da, eta espresio hori  
bideratzeko tresna beza-  
la, ahotsa, musika eta  
bere inguruko elementu  
guztiak bereganatu ditu  
—baita elementu disko-  
grafikoa, bistan da—.  
Orduan, Mikel ez da ki-  
tarrazko zortzi urte ikasi  
ondoren birtusiotateak  
erakusten iharduten den  
gizona. Hori baino askoz  
primarioagoa, hori baino  
askoz sinpleagoa. Mikel  
bera den bezain primario  
eta sinplea.

Eta bide horretatik  
abiatuz gero, bi posibili-  
tate ditu sujetoak. Lehe-  
nengoa —eta ia guztiok  
hemendik jotzen dute-  
lako ez da baliogu-  
txiagokoa— aurretik  
emandako eta ezagutu-  
tako espazio jakin eta  
urratueta gauza berriak  
eta estetikoki ederrak  
egiten saiatzea izango  
litzateke. Bigarrena ber-  
riz —eta berriro esan  
behar dugu ez dugula ba-  
loraziorik egiten— bide  
edo espazio berriak sor-  
tze saiatze etengabean  
kokatuko litzateke, na-  
hiz eta batzuetan gertat-  
zen den bezala, bigarren  
bide honetako produk-

toa ez da lehenengokoa  
bezain ongi jantzita gel-  
dituko, baina hori ez da  
funtsezko joera horre-  
tan. Horregatik, hain zu-  
zen, asko harritik dira  
Mikel bera diska berri  
honetaz oso pozik eta  
harroa sentitzen dela  
esaten badugu. Eta hor-  
tik, hasi behar genuke  
Mikelen diska aztertzen,  
gure aburuz. Beraz, Mi-  
kelen lana ez da musika-  
lariaren lana. Eta hori  
garbi ikus daiteke IZA-  
RREN HAUTSA gaia-



rekin. Aurretik zegoen  
bertsioa ezagutuz ere,  
Laboak egin duen asma-  
kuntza egiteko benetan  
bide urratzaile batena  
izan behar duela derit-  
zogu. Mikelek oinarria  
ematen du —flasha— eta  
hortik aurrera musikala-  
riaren lana dago, hori  
apaintzeko eta borobil-  
tzeko aipatutako ka-  
soan. Antton Valverde  
delarik horren zama  
hartu duena (bestalde  
egokitzen izugarri as-  
matu duena).

Orain arte esan du-  
guna, mitifikatutako tipo  
batek egin duen zerbait  
justifikatzeko asmatu  
dugun aitzaki bat beste-  
rik ez dela pentsatuko du  
norbaitek. Eta horrek  
lehen aipatu dugun pun-  
tura eramango gintuke,  
baina guk gurea bota or-  
doren hor gelditzen da  
kantxa librean nahiduen-  
rentzat.

Aurrerago jo baino.

lehen lehen esan duguna  
azpimarratu nahi dugu,  
hori baita aguretzat Mi-  
kelen diskagintzaren  
klabe edo giltza posi-  
blea: horrek ezartzen  
ditu bada gure azterketa-  
ren mugak etaikuspe-  
giak.

## odola mintzo

Badira bi detaile  
kantetan bertan lehen al-  
diz entzuten duena era-  
bat moskeatu eta Mike-  
lengan hain normala den  
adar jotzearen inpresioa  
uzten dutena: bata Letek  
asmatutako HAIZEA  
DATOR IFARRALDE-  
TIK kanta. Letek berak  
kantatuta sartzea, eta  
bestea XOXO BELTZA  
kanta bi aldiz sartzea.  
Guretzat ez da kasualita-  
tea, ordea, Xalbadorren  
HERRIA ETA HIZ-  
KUNTZA bertsoak eta  
beste biak elkarren atze-



tik joatea. Horretan aur-  
kitu diogu koerentzia,  
inpresioa eman baitigu  
hiru horiek batera Ipa-





rraldea gogoan egindako zerbaiten itxura duela: konkretuki Xalbador ekarri digu gogora. Nahiz eta kanta Bransensi dedikatuta egon, ez dakigu ez ote den egilea bera tronpatu, lurpetik kantatzen duen xoxoa Urepelen ez ote zituén ardiak zaintzen.

Musikaren historian ikasi dugun musikara iristeko bidea praktikatu egin du Mikelek, oinarritzat irrintzia hartuz, eta emaitza bezala ORREAGA gaia eskainiz. Badirudi gai hau iturrietara jotze konsziente bat dela, ezer egiteko oinarria denaren errebin-dikazio bat. Honetan ere, Mikelek Roldanena (adar jotzearena alegia) egin nahi zigula iruditu bazitzaigun ere, azke-nean honetan ere xapoa kendu behar...

### bitatik bat

Azken normala denez—  
KOMUNIKAZIO-  
INKOMUNIKAZIO-  
gaiari dedikatuko diogu,  
eta besterik ez bada ere,

gure interpretazioa eta balorapena ematen saiatuko gara. Saiotxo hau hiru aldiz entzun-ikusita daukagu: Z.Argian bertan 788. zenbakian honela idazten genuen:

«Ene eritzian, bere eboluzio pertsonala kantatzen hasi zenetik, oraintxe arte aditzera eman digu honek: zer nolako baldintza zehatzetan mugitu eta desarroilatu den bere bizia.

Mikrofono batetik agintea, zutik, azkar, mikatz, gordin eta bestetik zapaldua, jarririk, ahul, herabeti, beldurti, ezinaren kutsu... piskanaka-piskanaka azkartzen eta segurutzen doana, azkenik Mikelen ahots primitiboa karraxi bizi, aberats, barnekoi batez bukatzeko.»

Horrela genioen lehen, eta oraingoan noski zerbaiten falta nabari dugu. Diskan irakurketa oso bat falta baita: irudiarena alegia. Eta honek erabat arrazorik gabea uzten du — zenbaiten ustez— diskan grabatzea. Hala ere,

lortzen ditu eta bera haien barnean. Hizkuntza eta hitzen desbalorapena, guztia apurtuz, hemen ere argiago agertzen zaigu. Baina, dudarik gabe, askoz ere sujerentagoa zen, hausketa hori beste irudizko irakurketaz nahasirik gure aurrean ikusi genuenean, Mikel bera keinuka, zutik, eserita, etabar.

Bukaera eman nahi diogu iadanik artikuloiari. Mikelen zenbait misterio nolabait argitu eta aztertzeo aitzakitzat erabili dugun artikuloi honi. Gu behintzat gustorago gelditu gara, pertsona den Mikelengantz gehiago hurbildu garelakoan, espresio-bide baten oinarriak hobe ezagutzen ditugulakoan. Azken finean, espresio-bidea baita guztiaren oinarrian dagoena. Hau bazan, ez bazan, sartu dadila kalabazan, eta irten dadila Aieteko plazan.

